

## Andre Maria aroka jaioa

Andre Maria jaio,  
aroka edo etapaka jaio da.  
Gurasoek zoro eta pozik hartu dute Maria, bizira bidean ipiniz;  
gurasoek arduratsu hezi dute Maria giza eta jainkozko baloreetan bizirako  
bidean;  
Josez maitemindu da Maria bizirako bidea elkarrekin egiteko;  
gogotsu ekin diote biek bizirako bideari,  
beste jende bat bizirako bidean ipini nahiz;  
mimo guztiz agertu diote Jesusi nola egin bizirako bidea;  
azkar asko ulertuko dute biek,  
Jesusek ere bere bide propioa egin behar duela bizirako bidean;  
hurbiletik jarraitu dio, ordea, Mariak Jesusi;  
ezkonberrien larriaren aurrez aurre ipini du Jesus;  
gurutzeraino jarraitu dio Mariak Jesusi,  
ulertu du gizadi osoarentzat ari dela Seme hori bizirako bidea egiten;  
pozik hartu du Jesus berpiztua hila zena bizirako bidean:  
munduari bizirako bidea erakusteko jarraitzeko prest;  
pozik hartu albistea ikasleei ere agertu zaiela Jesus bizirik;  
pozez blai hartu du Jesusen Espiritua bizirako bidean,  
aurrerapauso handia izango du hori bizirako bidean;  
Joanengan jarri ditu begiak bereziki,  
esan nahiz, Jesusek salbatu guztiak ikusten dituela berak harengan bizirako  
bidean; gorputz fisikoa lurrean utzirik,  
gorputz eta arima eta sentimendu goitiarrez betiko jaio da Maria bere  
Semearen, zeruko bere Aitaren, bizitza osoan gidari izan duen Espirituaren  
elkarte bizian,  
mundu osoari laguntzeko biziaren bidean.  
Eskerrak Andre Maria.  
DIONISIO AMUNDARAIN